


**2026ko arte
plastiko eta
ikusizkoetarako
laguntzak**

**Ayudas a
las artes plásticas
y visuales 2026**



Index

1 Deialdiaren ildo orokorrak

- A Deialdiaren xedea eta helburua
- B Nori zuzendua dauden
- C Noiz
- D Modalitateak
- E Beste diru-laguntza batzuk jasotzea eta haiekiko bateragarritasuna
- F Argitaratzea
- G Oinarriak onartzea
- H Zalantzak eta galderak

2 Ekoizpenerako diru-laguntzak

- A Zenbatekoa
- B Finantzatzen ahal diren gastuak
- C Eskerak
- D Aukeraketa
- E Komunikazioa
- F Proiektuen jarraipena egitea
- G Onuradunen betebeharrak
- H Ordainketa, eta huraxe frogatzeko modua

3 Argitalpenerako diru-laguntzak

- A Zenbatekoa
- B Finantzatzen ahal diren gastuak
- C Eskerak
- D Aukeraketa
- E Komunikazioa
- F Proiektuen jarraipena egitea
- G Argitalpenen aurkezpena
- H Onuradunen betebeharrak
- I Ordainketa, eta huraxe frogatzeko modua

1 Líneas generales de la convocatoria

- A Objeto y finalidad de la convocatoria
- B Destinatarios
- C Temporalidad
- D Modalidades
- E Concurrencia y compatibilidad con otras subvenciones
- F Publicitación
- G Aceptación de las bases
- H Dudas y preguntas

2 Ayudas a la producción

- A Cuantía e importe
- B Gastos financiados
- C Solicitudes
- D Selección
- E Comunicación
- F Seguimiento y acompañamiento de los proyectos
- G Obligaciones de los beneficiarios
- H Pago y forma de justificación

3 Ayudas a la publicación

- A Cuantía e importe
- B Gastos financiados
- C Solicitudes
- D Selección
- E Comunicación
- F Seguimiento de los proyectos
- G Presentación de las publicaciones
- H Obligaciones de los beneficiarios
- I Pago y forma de justificación



**2026ko arte
plastiko eta
ikusizkoetarako
laguntzak**

A Deialdiaren xedea eta helburua

Uharte Zentroak, Nafarroako Gobernuko Kultura sailarekin elkarlanean, Arte Plastikoetarako eta Ikusizkoetarako Laguntzen Programa abiarazi du, arte-ikerketarako proiektu berriak sortzeko arte plastikoaren eta ikusizkoaren arloan: pinturan, eskulturan, marrazkian, grabatuan, argazkian, performancean, teknologia berrietan, bideo-sorkuntzan, prozedura mistoetan edota arte plastikoetako beste edozein modalitatetan.

Nafarroako artisten ikerketa, arte-lanaren ekoizpena, sormen-lana eta zabalkundea, proiektzioa eta sendotzea sustatzea, sortzaileei proiektu artistikoen ekoizpenean eta argitalpenean lagunduz.

B Nori zuzendua dauden

Proiektuak Nafarroan jaio edo bizi diren artistek egin beharko dituzte, eta banakakoak edo taldekakoak izan daitezke. (kolektiboen kasuan, kide guztiek nafarrak izan beharko dute).

Deialdi honetan laguntza lortzen duten eskatzaileek ezin izango dute modalitate bereko laguntza-eskaerarik egin datozen lau deialdietan. Aldaketa horrek atzeraeraginezko eragina du aurreko edizioetako oinarrietan, eta 2021eko onuradunak aurkeztu ahal izango dira, baita aurreko edizioetakoak ere.

C Noiz

Proiektuak 2026ko urtarrilaren 1a eta 2027ko martxoaren 18aren artean egin beharko dira.

D Modalitateak

Bi modalitate ezartzen dira:

Ekoizpenerako diru-laguntzak: proiektuen sorkuntza/ekoizpena arlo plastikoan eta ikusizkoan: artelanen ekoizpena eta ikerketak. [6. orrialdea]

Argitalpenerako diru-laguntzak: argitalpenak euskarri ezberdinetan egitea, arte garaikideko artistak eta formatu editorial bat behar duten arte-proiektuak hedatzeko eta sustatzeko. [12. orrialdea]

Proiektu bakar bat onartuko da eskatzaile bakoitzeko eta modalitate bakoitzean. Eskatzaile berberak ezin izanen du modalitate bakoitzeko laguntza jaso, urte berean.

Modalitate bakoitzera bideratu diren baliabideak modalitate bakoitzean baloratzen diren eskaeren artean banatuko dira, ezarritako prozedurarekin eta irizpideekin. Baina, modalitate batera bideratutako laguntzak agortzen ez badira, eskaerarik aurkeztu ez delako, edo betebeharrak bete ez direlako, edo balorazio batzordearen iritziz, eskaerek ez dutelako behar bezalako kalitaterik edo bideragarritasunik, laguntzak berriz eskaintzen ahalko dira eta beste modalitateari esleitutako zenbatekoari erantsi.

- E Beste diru-laguntza batzuk jasotzea eta haiekiko bateragarritasuna**
Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren diru-laguntzarekin batera, helburu bera duten beste diru-laguntza, beka edo laguntza batzuk jaso daitezke, entitate publikoek, pribatuek edo partikularrek emandakoak. Nolanahi ere, haien guztien zenbatekoa ezin da inola ere izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.
- F Argitaratzea**
Deialdiaren oinarriak Uharte Zentroko webgunean plazaratuko dira:
www.centrohuarte.es/eu
- G Oinarriak onartzea**
Eskaeren aurkezpenak berarekin dakar deialdi honen oinarrietan ezarritako baldintzak espresuki eta formalki onartzea.
- H Zalantzak eta galderak**
Oinarriak aurkezteko jardunaldi bat egingo da 2026ko martxoaren 18an, 13:00etan. Jardunaldia online izango da, esteka honetan:
<https://meet.google.com/tzg-gnua-kmo>
Zalantzak eta galderak helbide elektronikoko honetara bidaliko dira:
ayudas@centrohuarte.es Deialdiari buruzko zalantzak eta galderak jasotzeko epea deialdia itxi baino sei egun balioudun lehenago amaitzen da (apirilaren 1a barne).

A Zenbatekoa

60.000 euro ezarri dira, ekoizpen artistikoko proiektuentzat, gehienez ere 12.000 euroko bost laguntza edo gehiago.

Muga ekonomikoaren baldintza hori beteta, proiektu bakoitzerako eskatzen dena esleituko da.

Onuradunen batek Laguntzari uko egiten badio, puntuazioaren hurrenkeran hurrengo den proposamenari emango zaio, betiere, ebaluazio taldeak eskatutako gutxienekoa gainditzen badu.

Laguntza jasotzen duen azken proiektuari ezin bazaio diru-laguntzarik handiena eman, behar adina dirurik ez dagoelako, diru-laguntza soilik emango zaio, baldin eta emango ahal zaion zenbatekoak proiektuaren bideragarritasuna ziurtatzen badu (Ebaluazio Batzordearen iritziz), eta baldin eta onuradunak onartzen badu eskaintzen zaion diru-kopurura bere proiektura egokitzea. Hori dela eta, ez bada esleitzen modalitate honetarako dagoen kopuru osoa, soberan dagoen dirua argitalpeneko modalitatara bideratutako diruari gehituko zaio.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera eman beharreko laguntzen baturak deialdian ezarritako zenbatekoa gainditzen badu, artisten artean hainbanatu ahal izango da, eta zenbatekoa puntuazioaren proportzioan murriztuko da.

B Finantzatzen ahal diren gastuak

Finantzatuko diren gastuak diruz lagundutako proiektua gauzatzeko behar-beharrezko gastuak eta deialdi honetan ezarritako epean egingo direnak dira. Gastu hauen kostua ez da inola ere merkatuko balioa baino handiagoa izango:

- Proiektua ekoizteko behar diren materialak eta tresnak erostea.
- Onuradunaren joan-etorriak, ostatua eta garraioa, proiektuarekin zuzeneko lotura dutenak. Behar-beharrezko kostuak izanen dira proiektua gauzatzeko, eta hortaz, proiektua gauzatzeko epealdian egin beharko dira, txostenean adierazi eta aurrekontuan zehaztuko dira. Ez dira aintzat hartuko ohiko joan-etorrietatik edo joan-etorri arruntetatik datozen gastuak, ezta dieta-gastuak ere.
- Proiektuko ekintzak egiteko behar diren zerbitzuak, kanpoaldeko bitartekoak, ekipoak, bitarteko materialak eta beste kontratatzeak.
- Egitura-kostuak, hala nola estudio edo lokal bat alokatzea, betiere egokia bada eta proiektua garatzeko justifikatua badago. Ez dira kontuan hartuko artistaren ohiko estudioa mantentzearen ondoriozko gastuak, ezta Uharte Zentroaren instalazioek bete ditzaketan ezaugarriak dituzten estudioen alokairua ere.
- Artisten ordainsariak, sorkuntzarako egindako lanaren ordainez, ez du gainditu beharko jasotako laguntzaren %60a.

Ekipamendu-ondasun inbentariagarriak erosiz gero (ekipamendu ez-suntsikorra), diruz lagundu daitekeen gastua oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera kalkulatzeko den amortizazioa izango da, eta ezin izango da inola ere ondasunaren balioaren % 50 baino handiagoa izan.

Gastu hauetarako ez da diru-laguntzarik emango:

- Ondasun higiezin eta azpiegituren erosketarekin, erabilerarekin eta finantzaketarekin lotuta dauden guztiak, salbu eta aurreko puntuan ekipamenduko gastu inbentariagarrietarako ezarritakoa, betiere diru-laguntzaren xede den proiektua praktikan jartze aldera.
- Proiektua garatzeko guztiz beharrezkoak ez diren gastuak, edo zenbatekoa modu fidagarrian zehaztu gabe daudenak.
- Erakusketak, formakuntzak eta katalogoak ekoizteko gastuak.

Onartutako aurrekontua artistak aurkeztutako aurrekontuaren emaitza izango da, diruz lagundu ezin diren gastuei dagozkien zenbatekoak kenduta.

C Eskaerak

Baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak (epeak edota forma ez betetzeagatik, behar adina daturik edo agiririk ez aurkezteagatik) ez dira onartuko.

Aurkezpen epea

Eskaerak eta beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea 2026ko apirilaren 9an, 15:00etan itxiko da.

Zuzenketa

Jakinarazpena jasotzen denetik hiru eguneko epea dago akatsak zuzentzeko. Epe hori igarotakoan eskatutako dokumentazioa gehitzen ez bada, eskaera ezetsi egingo da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaerarekin dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Izena emateko fitxa behar bezala bete eta sinatua (1 MB gehienez).
- NANaren fotokopia edo Nafarroan 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen erroldatua egotearen ziurtagiria (1 MB gehienez).
- Aurrekontu xehatua eta zehatza, emandako Excel formatuko eredu jarraituz (1 MB gehienez).
- Proiektuaren azalpen txostena, PDF bakarrean (6 MB gehienez):
 1. Proiektuaren sinopsia edo laburpena (500 karaktere gehienez).
 2. Proiektuaren planteamendu teorikoa eta kontzeptuala (3000 karaktere gehienez).

3. Proiektuaren materializazioa edo ebazpena (100 karaktere gehienez).
 4. Irudiak eta/edo zirriborroak (15 irudi gehienez).
 5. Kronograma edo lan-plana (orrialde bat gehienez).
- Curriculuma, PDF bakarrean, deialdiaren xede den esparruan egindako ibilbide akademiko eta profesionalarekin (kolektiboen kasuan, kide guztien curriculuma aurkeztuko da) (gehienez 2 orrialde eta 1 MB).
 - Aldez aurretik egindako lanen gaineko txostena. (gehienez 8 orrialde eta 5 MB).

Aurkezteko modua

Dokumentazio guztia formatu digitalean aurkeztuko da, ondorengo esteka bidez, deskargatu daitezkeen ereduak erabiliz, beti ere formatu berean badaude.

1. Izena emateko esteka
2. Izena emateko fitxa
3. Excel

Dokumentazioaren gehienezko pisua 15 Mb-ekoa izango da.

Bideoak, web helbide bidez aurkeztu ahal izango dira, dagokion dokumentuan.

Artxibo bakoitza **IZENA_ABIZENAK_LAGUNTZAK_EKOIZPENA_aurrekontua*.pdf** bezala izendatuko da, eta izena emateko inprimakiaren dagokion atalean igoko da.

Prozesua amaitzean, email automatiko bat bidaliko da, eskaera jasotzearekin batera, eta, datozen egunetan, dokumentazio zuzenaren berrespena, erregistro-zenbakiarekin edo zuzenketa- eskaerarekin batera.

D **Aukeraketa**

Ebaluazio batzordea

Hona ebaluazio batzordeko kideak:

- Bea Espejo, arte kritikari eta komisarioa.
- Leire San Martín, hezkuntza eta kultur programazioan lan egiten du.
- Greta Alfaro, artista plastikoa eta Uharteko Zentroko Patronatuko kidea
- Oskia Ugarte, Uharteko Arte Garaikideko Zentroko zuzendaria idazkaria izanen da; hizpidea du baina botorik ez.

*
Aurrekontua hala badagokio, bestela, inskripzioa, memoria, NANA edo dagokiona.

Balorazio-prozedura

1. Uharte Zentroak eskaeraren lehenengo ikuspen teknikoa egingo du eskaerek deialdiaren oinarriak betetzen dituztela ziurtatzeko. Ez dira onartuko baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak.
2. Ebaluazio batzordeko kideek onartutako proiektuak jasoko dituzte, eta banan-banan eta bakoitzak bere aldetik baloratuko dituzte.
3. Ebaluazio batzordea bildu egingo da hautagaien puntuazioak bateratzeko. Batzordeak egokitzat jotzen dituen hautagaiei elkarrizketa bat egiteko eskatu ahal izango die, proposamenean sakontzeko eta balizko gaiak argitzeko. Baterako balorazio horretatik abiatuta, azken puntuazioaren proposamena egingo du.

Onartutako aurrekontuak ezarri eta proiektu guztien bideragarritasuna ziurtatu ondoren, ebaluazio-batzordeak gehien baloratutako proiektuen artean banatuko du dirulaguntza. Erabakia loteslea izango da.

Balorazio-irizpideak

Irizpide hauen arabera baloratuko dira proiektuak:

1. Proiektuaren kalitate artistikoa (70 puntu).
 - Proiektuaren garrantzia, interesa eta ideia kontzeptualaren eta hura garatzeko proposamenaren arteko koherentzia (45 puntu).
 - Arte-sorkuntzaren esparrua berritzeko bultzada izatea (15 puntu).
 - Proiektuaren aurkezpena eta formulazioa (10 puntu).
2. Ibilbide artistikoaren edo haren proiektzio potentzialaren interesa eta koherentzia (20 puntu).
3. Proiektuaren bideragarritasuna eta aurrekontuaren egokitasuna (10 puntu).

Aurreko irizpide horiek aplikatuta, 100 puntu gehienez emango zaizkio proiektu bakoitzari, eta ez dira aintzat hartuko gutxienez ere 50 puntura iristen ez diren proiektuak. «Proiektuaren kalitate artistikoa» ataleko puntuazioaren erdia lortzen ez duten proiektuak ez dira kontuan hartuko.

E Komunikazioa

Hautaketa interesdunei jakinaraziko zaie itxi eta bi hilabeteko epean, eta Huarte Zentroaren webgunean argitaratuko da: www.centrohuarte.es/eu

F Proiektuen jarraipena egitea

Uharte Zentroak proiektuen eta artisten jarraipena egingo du, proposamenaren arabera ezberdina izango dena.

Egonaldia Uharte Zentroan

Artista onuradunek Uharte Zentroaren instalazioak erabili ahal izango dituzte, eta lanerako leku bat izango dute eskura urte osorako, bertako baliabideak eta ekipamenduak erabiltzeko aukera ere izango dutelarik.

Proiektuen aurkezpena

Hurrengo urtean, Uharte Zentroak proiektu guztien aurkezpen kolektiboa egingo du ikusgarritasun- gune batean eta onuradunekin adostuta. Uharte Zentroa artistak gidatzen eta laguntzen saiatuko da beraien lanaren aurkezpen indibidualak errazteko.

G Onuradunen betebeharrak

Laguntza deialdi honetan diruz laguntzen den proiekturako soilik erabiltzea.

Uharte Zentroan justifikatu beharko da diruz lagundutako proiektua gauzatu dela eta zer gastu egin den. Proiektua bukatutzat jotzeko, aurkezteko moduan egon beharko du.

Proiektua gauzatzea deialdian aurkeztutako terminoetan. Hala ere, aldaketak egin ahalko dira, baldin eta aldaketa nabarmenik eragiten ez bada, eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoari eragiten ez badiote.

2027an, beste proiektu onuradunekin batera proiektua aurkeztea, zehazten diren egun eta baldintzetan.

Laguntzaren xede den proiektua finantzatzen duten beste diru-laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen berri ematea Uharteko Arte Garaikide Zentroari.

Uharte Zentroari proiektuaren gauzapena egiaztatzeko aukera uneoro ematea.

Azken memoria aurkeztea, proiektuaren gauzapenaren justifikazioa, bai eta emaitzak, garapena eta ebaluazioa ere jasoko dituen. Txostenean jaso beharko da proiektuaren alderdi guztiak bete egin direla, deialdian aurkeztutako proposamenean bildutakoarekin bat.

Jasotako diruaren aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeelako.

Proiektutik eratorritako edozein motatako argitalpenean honako hau agertu beharko da: *«Este proyecto ha sido realizado gracias al Programa de Ayudas a las Artes Plásticas y Visuales del Centro de Arte Contemporáneo de Huarte en colaboración con el Departamento de Cultura del Gobierno de Navarra / Proiektu hau Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren Arte Plastiko eta Ikusizkoetarako Laguntza Programari esker egin da, Nafarroako Gobernuak Kultura Sailarekin lankidetzan.»* Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren eta Nafarroako Gobernuaren logotipoak ere ikusgai egongo direlarik. Uharte Zentroak eman beharko du logotipoen erabilera zuzenaren baimena.

H Ordainketa, eta huraxe frogatzeko modua

Ordainketa-prozedura

Laguntzen ordainketa hiru tartetan egingen da:

1. Laguntza onartu ondoren, proiektuaren aurrekontuaren %60 aurreratuko da. 2026ko abenduaren 17ra arte onuradunak ordura arte egindako gastuak justifikatuko ditu (proiektuaren aurrerapenen memoria labur batekin batera). Justifikazio horren ondoren, eta jasotako %60 baino gehiago justifikatuz gero, gehienez %20 gehiago ordainduko zaie.
2. Onuradunek 2027ko martxoaren 18ra arteko epea izango dute azken justifikazio-memoria aurkezteko. Laguntzaren azken zatia 2026ko apirilean ordainduko da, azken justifikazio-memoria aurkeztu eta begiratu ondoren.

Justifikatzeko modua

Onuradunak behartuta daude jasotako laguntzaren kontura egindako gastuak justifikatzera, bai eta laguntzaren helburuak bete direla egiaztatzen ere, adostutako epeetan (ikus ORDAINKETA PROZEDURA) eta honako agiri hauen bidez:

- Egindako jardueraren memoria teknikoa, emaitzak, garapena eta ebaluazioa barne. Memorian, proiektuaren alderdi guztiak bete direla eta deialdian aurkeztutako proposamenen bildutakoarekin bat datorrela jaso beharko da.
- Onartutako proiektua gauzatzeko egin diren gastuen frogagiriak.
 - Gastuak fakturen bidez edo administrazio-eraginkortasuna duten bestelako frogagiriaren bidez justifikatuko dira. Fakturak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera jaulki beharko dira, eta Fakturazio Betebeharrak arautzen dituen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuari jarraikiz eginak. Ez dira onartuko baldintza horiek betetzen ez dituzten fakturak.
 - Diruz lagundutako proiektuaren gastu guztia justifikatu beharko da. Egindako gastutzat hartuko da ordaindu izanaren ziurtagiria daukana.
- 50 eurotik gorako ordainketa guztiak bankuko transferentziaren edo txartelaren bidez egingen dira. Eskudiruz ordaindutako 50 euro baino gutxiagoko ordainketek hornitzaileek luzatutako faktura beharko dute, «ordaindua» zigiluarekin...

Dokumentazio hori guztia Uharte Zentroak horretarako prestatutako plataforma digitalaren bidez bidaliko da. Ordainagiriak ezarritako data baino lehen aurkezten ez badira, ez dira ordainduko. Era berean, aurreratutako diru laguntza ez bada justifikatzen, bueltatua izan beharko da.

A Zenbatekoa

25.500 euro ezarri dira gutxienez 3 argitalpen-proiektu laguntzeko; gehienez 8.500 euro proiektuko.

Muga ekonomikoaren baldintza hori beteta, proiektu bakoitzerako zenbat eskatzen den, horrenbestekoa izanen da laguntza.

Onuradunen batek uko egiten badio laguntzari, puntuazioaren hurrenkeran hurrengo den eskatzaileari emanen zaio, betiere, deialdian eskatutako gutxienekoa gainditzen badu.

Laguntza jasotzen ahal duen azken proiektuari ezin bazaio diru-laguntzarik handiena eman, behar adina dirurik ez dagoelako, diru-laguntza soilik emanen zaio, baldin eta ematen ahal zaion zenbatekoak proiektuaren bideragarritasuna ziurtatzen badu (Ebaluazio Batzordearen iritziz), eta baldin eta onuradunak onartzen badu eskaintzen zaion diru-kopurura bere proiektua doitzea. Hori dela eta, ez bada esleitzen modalitate honetarako dagoen kopuru osoa, soberan dagoen dirua ekoizpeneko modalitatara bideratutako diruari eransten ahalko zaio.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera eman beharreko laguntzen baturak gainditzen badu deialdian ezarritako zenbatekoa, artisten artean hainbanatu ahal izango da, eta zenbatekoa puntuazioaren proportzioan murriztuko da.

B Finantzatzen ahal diren gastuak

Finantzatu daitezkeen gastuak dira argitalpenarekin eta edizioarekin lotura zuzena dutenak, eta deialdi honetan ezarritako epean egiten direnak. Aipatu gastuen kostua ez da inola ere izanen merkatuko balioa baino handiagoa.

- Diseinu grafikoaren kostuak, materiala landu eta prestatzeko kostuak.
- Eskatzen duen egileaz bestelako egileen ordainsariak argitalpeneko lanengatik (argazkia, testuak...).
- Itzulpenak.
- ISBN.
- Edizioa-inprimaketa.
- Eskatzailearen ordainsariak. Horiek ez dute gainditu behar jasotako laguntzaren zenbateko osoaren %15.

Gastu hauetarako ez da diru-laguntzarik emanen:

- Jarduera kudeatzeari eta koordinatzeari lotutako gastuak, lana ekoizteko kostuak, eta era berean, bidalketa gastuak, hedapen eta komunikazio gastuak, dieta-gastuak, joan- etorrikoak eta beste gastu arrunt batzuk.
- Proiektua gauzatzeko guztiz beharrezkoak ez diren gastuak, edo zenbatekoa modu fidagarrian zehaztu gabe dutenak.

Onartutako aurrekontua artistak aurkeztutako aurrekontuaren emaitza izango da, diruz lagundu ezin diren gastuei dagozkien zenbatekoak kenduta.

C Eskaerak

Eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak (epeak ez betetzeagatik, daturik edo dokumentaziorik ez aurkezteagatik) ezetsi egingo dira.

Aurkezpen epea

Eskaerak eta beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea 2026ko apirilaren 9an, 15:00ean itxiko da.

Zuzenketa

Jakinarazpena jasotzen denetik hiru eguneko epea dago akatsak zuzentzeko. Epe hori igarotakoan, eta eskatutako dokumentazioa bidali ezean, eskaera ezetsi egingo da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Izena emateko fitxa behar bezala beteta eta sinatuta (1 MB gehienez)
- NANaren fotokopia edo Nafarroan 2025ko urtarrilaren 1a baino lehen erroldatua egotearen ziurtagiria. (1 MB gehienez)
- Aurrekontu xehatua eta zehatza, emandako eredia jarraituz Excel formatuan (1 MB gehienez)
- Proiektua azaltzeko txosten bakarra PDFan, honakoa barne-bilduz (6 MB gehienez)
 1. Proiektuaren sinopsia edo laburpena (500 karaktere gehienez).
 2. Proposamena (2000 karaktere gehienez).
 3. Kolaboratzaileen zerrenda, baldin badago: testuak, diseinua...
 4. Kronograma edo lan-plana (gehienez orrialde bat).
 5. Banaketa- edo hedapen-plana, proposatutako ale-kopurua, publikoarentzako salmenta-prezioa eta argitaletxea adierazita (autoedizioa ez bada).
 6. Argitalpenaren behin-behineko maketazioa.
- Curriculuma PDF bakarrean, deialdiaren xede den esparruan egindako ibilbide akademiko eta profesionalarekin. Kolektiboen kasuan kide guztien curriculuma aurkeztuko da. (gehienez 2 orrialde eta 1 MB).
- Aldez aurretik egindako lanen txostena (gehienez 8 orrialde eta 5 MB).

Aurkezteko modua

Dokumentazio guztia formatu digitalean aurkeztuko da, ondorengo estekaren bidez, deskargatu daitezkeen ereduak erabiliz, beti ere formatu berean badaude.

1. Izena emateko esteka
2. Izena emateko fitxa
3. Excel

Dokumentazioaren gehieneko pisua 15 Mb-ekoa izango da.

Bideoak, web helbide bidez aurkeztu ahal izango dira, dagokion dokumentuan.

Artixiboak honela izendatuta agertu beharko dute: **IZENA_ABIZENAK_LAGUNTZAK_EKOIZPENA_aurrekontua*.pdf** eta izena emateko inprimakiaren dagokion atalean igoko da.

Prozesua amaitzean, email automatiko bat bidaliko da, eskaera jasotzearekin batera, eta, datozen egunetan, dokumentazio zuzenaren berrespena, erregistro-zenbakiarekin edo zuzenketa- eskaerarekin batera.

Dokumentazioa puntu honetan zehaztu ez den beste modu batean aurkezteak berekin ekarriko du eskaera ez onartzea.

*
Aurrekontua hala
badagokio, bestela,
inskripzioa, memoria,
NANa edo dagokiona.

D Aukeraketa

Ebaluazio batzordea

Hona ebaluazio batzordeko kideak:

- Bea Espejo, arte kritikari eta komisarioa.
- Leire San Martín, hezkuntza eta kultur programazioan lan egiten du.
- Celia Martín Larumbe, Museoen saileko arduraduna Kultura Zuzendaritza Nagusiaren ordezkarietan
- Greta Alfaro, artista plastikoa eta Uharteko Zentroko Patronatuko kidea
- Oskia Ugarte, Uharteko Arte Garaikideko Zentroko zuzendaria idazkaria izanen da; hizpidea du baina botorik ez

Balorazio-prozedura

Onartutako aurrekontuak ezarriarik eta proiektu guztien bideragarritasuna ziurtatuta, Ebaluazio Batzordeak diru-laguntzak banatuko ditu balorazio altuena izan duten proiektuen artean. Erabakia loteslea izango da.

1. Uharteko Zentroak eskaeraren lehenengo ikuspen teknikoa egingen du eskaerak deialdiaren oinarriak betetzen dituztela ziurtatzeko. Ez dira onartuko baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak.
2. Ebaluazio batzordeko kideek onartutako proiektuak jasoko dituzte, eta banan-banan eta bakoitzak bere aldetik baloratuko dituzte.

3. Ebaluazio batzordea bildu egingo da hautagaien puntuazioak bateratzeko. Batzordeak egokitzat jotzen dituen hautagaiei elkarrizketa bat egiteko eskatu ahal izango die, proposamenean sakontzeko eta balizko gaiak argitzeko. Baterako balorazio horretatik abiatuta, azken puntuazioaren proposamena egingo du.

Onartutako aurrekontuak ezarri eta proiektu guztien bideragarritasuna ziurtatu ondoren, ebaluazio batzordeak gehien baloratutako proiektuen artean banatuko du dirulaguntza. Erabakia loteslea izango da.

Balorazio-irizpideak

Irizpide hauek erabiliz baloratuko dira proiektuak:

1. Argitalpenaren interesa eta koherentzia (65 puntu).
 - Argitalpenaren garapena. Egitura, diseinua, koherentzia edukiaren eta proposatutako kolaborazioen artean (40 puntu).
 - Proiektuaren garrantzia, interes maila, eta lagungarriak izatea arte-sorkuntzaren esparrua eta eskatzailearen ibilbidea berritzeko (15 puntu).
 - Proiektuaren aurkezpena eta formulazioa (10 puntu).
2. Ibilbide artistikoaren edo haren proiektzio potentzialaren interesa eta koherentzia (20 puntu).
3. Banaketa-plana eta aurrekontuaren egokitasuna (10 puntu).
4. Euskarak proiektuan tokia izatea (5 puntu). Irizpide hau ez da aplikatuko, ezein hizkuntzarik aurreikusten ez duten proiektuen balorazioan; horietarako, atal honetan aurreikusitako ehuneko 1. atalaren 1.puntuaren ehunekoari erantsiko zaio.

Aurreko irizpide horiek aplikatuta, 100 puntu gehienez emanen zaizkio proiektu bakoitzari, eta ez dira aintzat hartuko gutxienez 50 puntura iristen ez diren proiektuak. «Argitalpenaren interesa eta koherentzia» ataleko puntuazioaren erdia lortzen ez duten proiektuak ere ez dira onartuko

E Komunikazioa

Hautaketa interesdunei jakinaraziko zaie itxi eta bi hilabeteko epean, eta Huarte Zentroaren webgunean argitaratuko da: www.centrohuarte.es/eu

F Proiektuen jarraipena egitea

Uharte Zentroak proiektuen eta artisten jarraipena egingo du, proposamenaren arabera ezberdina izango dena.

G Argitalpenen aurkezpena

2027an argitalpen guztiak batera aurkeztuko dira, Uharte Zentroaren programazioaren baitan. Artistekin ados jarri ondoren, Uharte Zentroa lankidetzan aritzen ahalko da argitalpena beste leku batzuetan aurkezteko.

H Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan diruz laguntzen den proiekturako soilik erabiltzea laguntza.

Uharte Zentroaren aurrean proiektua gauzatu dela justifikatzea, eta emandako laguntzaren kontura egindako gastuak ere bai. Proiektua amaitutzat emateko, argitaratuta egon behar du.

Proiektua deialdian aurkeztutakoarekin bat gauzatzea. Aldaketak egin ahalko dira, baldin eta aldaketa nabarmenik eragiten ez badute, eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoari eragiten ez badiote.

Argitalpena 2027an aurkeztea, gainerako argitalpen onuradunekin batera, Zentroak eskatutako lekuan, egunean eta baldintzetan.

Laguntzaren xede den argitalpena finantzatzen duten beste diru-laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen berri ematea Uharteko Arte Garaikide Zentroari.

Uharte Zentroari argitalpenaren garapena egiaztatzeko aukera uneoro ematea.

Gutxienez 15 argitalpen-ale ematea Uharteko Zentroari, argitalpena inprimatua bada.

Proiektua egin izanaren justifikazioa eta proiektuaren maketa digitala jasotzen dituen amaierako memoria aurkeztea.

Jasotako diruaren aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeelako.

Argitalpenaren ageriko leku batean honako hau agertu beharko da: *«Este proyecto ha sido realizado gracias al Programa de Ayudas a las Artes Plásticas y Visuales del Centro de Arte Contemporáneo de Huarte en colaboración con el Departamento de Cultura del Gobierno de Navarra / Proiektu hau Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren Arte Plastiko eta Ikusizkoetarako Laguntza Programari esker egin da, Nafarroako Gobernuak Kultura Sailarekin lankidetzan.»* Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren eta Nafarroako Gobernuaren logotipoak ere ikusgai egongo direlarik. Uharte Zentroak eman beharko du logotipoen eta esaldiaren erabilera zuzenaren baimena.

Laguntza jasotzen duten argitalpenak onuradunak eta Uharteko Arte Garaikideko Zentroak elkarlanean egindakotzat hartuko dira. Bi alderdiek hedapenerako ekintzak egin ditzakete, eta aldez aurretik hitzartuko dituzte. Nolanahi ere, lankidetzan hori beti adieraziko da, edozein motatako material inprimatuetan edo zuzeneko komunikazioko ekintzetan.

I Ordainketa, eta huraxe frogatzeko modua
Ordainketa-prozedura

Laguntzen ordainketa hiru tartetan egingen da:

1. Laguntza onartu ondoren, proiektuaren aurrekontuaren %50 aurreratuko da.
2. 2026ko abenduaren 17ra arte onuradunak ordura arte egindako gastuak justifikatuko ditu (proiektuaren aurrerapenen memoria labor batekin batera). Justifikazio horren ondoren, eta jasotako %50 baino gehiago justifikatuz gero, gehienez %25 gehiago ordainduko zaie.
3. Onuradunek 2027ko martxoaren 18ra arteko epea izango dute azken justifikazio-memoria aurkezteko. Laguntzaren azken zatia 2027ko apirilean ordainduko da, azken justifikazio-memoria aurkeztu eta begiratu ondoren.

Justifikatzeko modua

Onuradunak behartuta daude jasotako laguntzaren kontura egindako gastuak justifikatzera, bai eta laguntzaren helburuak bete direla egiaztatzea ere, adostutako epeetan (ikus Ordainketa eta justifikazio-modua) eta honako agiri hauen bidez:

- Egindako jardueraren memoria teknikoa, emaitzak, garapena eta ebaluazioa barne. Txostenean, proiektuaren alderdi guztiak bete direla eta deialdian aurkeztutako proposamenean bildutakoarekin bat datorrela jaso beharko da.
- Onartutako proiektua gauzatzeko egin diren gastuen frogagiriak.
 - Gastuak fakturen bidez edo administrazio-eraginkortasuna duten bestelako froga-agirien bidez justifikatuko dira. Fakturak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera jaulki beharko dira, eta Fakturazio Betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua onesten duen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuari jarraikiz eginak. Ez dira onartuko baldintza horiek betetzen ez dituzten fakturak.
 - Diruz lagundutako proiektuaren gastu guztia justifikatu beharko da. Egindako gastutzat hartuko da ordaindu izanaren ziurtagiria daukana.
- 50 eurotik gorako ordainketa guztiak bankuko transferentziaren edo txartelaren bidez eginen dira. Eskudiruz ordaindutako 50 euro baino gutxiagoko ordainketek hornitzaileek luzatutako faktura beharko dute, «ordaindua» zigiluarekin..

Ordainagiriak ezarritako data baino lehen aurkezten ez badira, ez dira ordainduko justifikatu ez diren ordainketak. Era berean, aurreratuko diru laguntza ez bada justifikatzen, bueltatua izan beharko da.



**Ayudas a
las artes plásticas
y visuales 2026**

Líneas generales de la convocatoria

A Objeto y finalidad de la convocatoria

El Centro Huarte, en colaboración con el Departamento de Cultura del Gobierno de Navarra, lanza el Programa de Ayudas a las Artes Plásticas y Visuales para la realización de proyectos inéditos de investigación artística en los campos de las artes plásticas y visuales: pintura, escultura, dibujo, grabado, fotografía, performance, nuevas tecnologías, video creación, procedimientos mixtos o cualquier otra modalidad de las artes plásticas.

Fomentar la investigación, la producción de obra artística, la labor creativa y la difusión, proyección y consolidación de les artistas navarres, apoyando a les creadores en la producción y publicación de proyectos artísticos.

B Destinatarios

Los proyectos deberán ser realizados por artistas nacidos o residentes en Navarra y podrán ser individuales o colectivos (en caso de trabajos colectivos, todas las personas integrantes tendrán que ser navarres).

Las personas solicitantes que obtengan ayuda en esta convocatoria no podrán formular solicitudes de ayudas en la misma modalidad en las convocatorias que se aprueben con el mismo objeto en las próximas cuatro ediciones.

Esta modificación afecta con carácter retroactivo a las bases de ediciones anteriores, pudiéndose presentarse las personas beneficiarias en la edición de 2021 y anteriores.

C Temporalidad

Los proyectos deberán ser realizados entre el 1 de enero de 2026 y el 18 de marzo de 2027.

D Modalidades

Se establecen dos modalidades:

Ayudas a la producción. Realización de proyectos en el campo de la creación-producción plástica y visual: producción de obra artística e investigación. [Página 21]

Ayudas a la publicación. Realización de publicaciones en distintos soportes cuyo objeto sea la difusión y promoción de artistas y proyectos artísticos de arte contemporáneo que requieran un formato editorial. [Página 28]

Se admitirá un solo proyecto por solicitante en cada modalidad. Le mismo solicitante no podrá recibir una ayuda de cada modalidad en el mismo año.

Los recursos asignados a cada modalidad se distribuirán entre las solicitudes valoradas en cada una de ellas, de acuerdo con el procedimiento y criterios establecidos. Sin embargo, cuando por falta de concurrencia de solicitudes, incumplimiento de requisitos o falta de calidad o viabilidad de estas a juicio de la comisión evaluadora, no se agotaran las cantidades asignadas a cada una de las modalidades, estas podrán reasignarse y pasar a incrementar las asignadas a la otra modalidad.

E Concurrencia y compatibilidad con otras subvenciones

